

EKINN DENDAK MERKATUA PROGRAMAREN DEIALDIA ARAUTZEKO OINARRIAK

AURREKARIAK

Donostiako Sustapenak, Donostiako Udalean garapen ekonomikoaz arduratzen den sozietateak, besteak beste, hiriaren garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzea du helburu, batez ere kohesio eta jasangarritasun irizpideak betez; horretarako, hiriko hainbat eragileren arteko adostasuna eta lankidetzak sustatu nahi du, gure hiria eraldatzeko eredutzat hartutako egitasmo berritzaileak garatzearen alde apustu argia eginda.

Ekinn dendak 2024. urtean sortu zen, merkataritza suspertzeko eta tokiko hutsune komertziala murrizteko tresna ekimen gisa. Programaren helburua aukera ekonomikorako gune bat sortzea da, batetik, ekintzailetza arloko ekimen komertzial berriak babesteko (merkataritzako ekintzailetza bultzatuz) eta, bestetik, hutsik dauden lokal komertzialak betetzen laguntzeko.

Ekinn dendak programak, hasieratik, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren laguntza eta babesa jasotzen ditu.

Ekinn dendak Merkatura programak Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren laguntza du.

Illo estrategiko honen markoan (merkataritza tokiko ekintzailetzaren bidez suspertzea), pasa den irailean, La Bretxako Merkatuaren administrazio emakida Donostiako Udalak berreskuratu zuen eta Donostiako Sustapena zuzenean kudeatzen ari da, merkaturako saltokiak suspertzeko eta, aldi berean, tokiko merkataritza bultzatzeko.

La Bretxako Merkatura, testuinguru horretan, **merkataritzako berrikuntzarako aukera berri** bihurtzen da hiriarentzat, berregituratzeko eta merkataritza suspertzeko prozesuan dagoen edukiontzi komertzial gisa, proiektu berritzaileen bultzagarri gisa jokatzeko duena ekintzailetzako ideia komertzial berrientzat eta tokiko produktuak, artisau-lanak eta/edo produktu bereziak saltzen dituzten merkatarientzat. Merkatuaren eskaintza komertziala osatzen duten proiektuak, lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzen eta bere erakargarritasuna eta bisitari zein kontsumitzaileak erakartzeko gaitasuna indartzen dituztenak.

Ekinn dendak Merkatura programa honen helburua merkataritzako berrikuntzaren bidez, merkaturako saltokien modernizazioa eta lehiakortasuna sustatzea da, baita hiriko merkataritza eremuak suspertzea ere.

Aurrekari horietan oinarrituta, **Donostiako Sustapenak** Donostiako ekintzaileen eta saltokien **eskura jartzen ditu La Bretxako merkaturako lokal komertzialak**, beren merkataritza

proiektuekin esperimentuak eta probak egin ditzaten, tokiko merkataritzaren eta Merkatuaren beraren hazkundera eta hedapena sustatzeko.

PROGRAMAREN BALDINTZAK

1. DEIALDIAREN HELBURUA

Oinarri hauen helburua Donostiako Sustapenak La Bretxako Merkatuko lokal komertzialen adjudikaziodunak hautatzeko sustatu duen deialdi publiko hau arautzeko termino eta baldintzak ezartzea da; adjudikazio horiek administrazio emakidaren araubidean egingo dira, hiriko ekintzaile eta merkatariei zuzenduta daude eta bi helburu dituzte: **alde batetik**, ekintzaileei beren negozio komertzialen ideiak probatzen laguntzea, baita Donostiako txikizkako merkatarien lehiakortasuna indartzea ere, baldin eta negozio lerro edo produktu berriak irekitzeko aukeraren bideragarritasuna testatu nahi badute La Bretxako Merkatuan erabil daitezkeen lokal komertzialetako batean; eta, **bestetik**, La Bretxako Merkatuan finkatutako saltokien modernizazioari laguntzea.

Horretarako, Donostiako Sustapenak, La Bretxako Merkatuaren emakidaren kudeatzaile gisa, pertsona horien eskura jartzen ditu Merkatuan dauden lokal komertzialak, enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzeko, lokal horiek dinamizazio soziolaboral, enpresarial eta ekonomikoaren tresna bihurtuta. Lokal horiek honako pertsona hauek hartu ahal izango dituzte aldi baterako:

- a) Ekintzaileak, baldin eta hazteko potentziala duten eta gaur egungo tokiko merkataritzaren eskaintzari laguntzen eta hura osatzen duten negozio ideia komertzialak badituzte.
- b) Donostiako merkataria, baldin eta nahi badute: beren establezimenduan produktu eta/edo zerbitzu berri bat sartu; Parte Zaharrean hedapen komertziala aztertu; *co-branding* formulak garatu; lekua beste negozio batekin partekatuz merkataritza formula berriak probatu: zerbitzazioa, produktuaren bigarren bizitza,...

Ekinn dendak Merkatua programak 6 hilabete iraungo du, eta luzatu ahal izango da, baldin eta Donostiako Sustapenak komenigarritzat jotzen badu.

Ekintzaileen kasuan, aurreikusten den gutxieneko egonaldia 6 hilabetekoa izango da; merkatarien kasuan, aldiz, 3 hilabetekoa izango da aurreikusten den batez besteko egonaldia.

Aurkeztutako proposamen eta ekimenak Oinarri hauetan ezarritako prozedurari jarraikiz hautatuko dira. Onuradunak hautatuta eta eskainitako lokalen behin betiko erabilera erabakita, Donostiako Sustapenak lokal horiek egokitu egingo ditu.

2. PROGRAMAREN EGITURA ETA EMAKIDAREN ARAUBIDEA

Programaren onuradun izan daitezkeen bi taldeak aintzat hartuta, programaren egitura honako hau izango da:

2.1. EKIMEN EKINTZAILEAK

Ekintzaileen kasuan, programak bi fase ditu:

- a) Joera komertzialetan espezializatutako prestakuntza.
- b) La Bretxako Merkatuan dauden lokal komertzialetan probak egitea eta saltzea.

a) MERKATARITZA NEGOZIOEI BURUZKO PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA: FORMAKUNTZA ETA TUTORETZA

Prestakuntza, aholkularitza espezializatu eta tutoretza fasearen helburu nagusia tokiko ekintzaileen proiektu komertzial bereziak eta berritzaileak identifikatzea da, horiek ezartzen eta martxan jartzen laguntzeko, lokal horietan kokatzeko aukera emanaz, negozio ideia horien bideragarritasuna garatu eta esperimendatzeko. Fase honek bi hilabete inguruko iraupena izango du.

Lehenengo astean parte hartzaileak eta beren proiektuak aurkeztuko dira; azken astean, aldiz, programaren lehenengo fasearen ostean lortutako emaitzak aurkeztuko dira. Programak iraungo duen gainerako asteetan garatuko diren prestakuntza edukiak honako multzo hauetan egituratuko dira:

- Zeharkako formakuntzako taldeko saioa, arlo pertsonal, estrategiko, ekonomiko-finantzario, administratiboari eta marketinari buruzkoa, ekintzaileei enpresa bat kudeatzeko oinarriko kontzeptuak irakasteko. Saio bakoitzean erronka bat planteatuko da, parte hartzaileek hurrengo saiorako gara dezaten, beren proiektuari aplikatuz.
- Taldeko saioa "Galderak eta erantzunak". Saio bakoitzaren aurretik, parte hartzaileei tokiko merkataritzarekin eta enpresa kudeaketari buruzko zeharkako prestakuntzarekin zerikusia duten gai jakin batzuei buruzko hiru "podcast" bidaliko zaizkie, entzun dezaten eta izan ditzaketen galderak azter ditzaten. Q&A saioak tokiko merkataritza eguneratzean eta hiriko merkataritza guneen ekonomia suspertzean aditua den kontsultari batek dinamizatuko ditu; kasuaren

metodologia erabiliz, modu praktikoan aztertuko ditu planteatutako gaiak eta sor daitezkeen galdera guztiei erantzungo die.

- Banakako tutoretza. Asteetako bakoitzean, parte hartzaile bakoitzak jarraipen tutoretza bat izango du, bere proiektua garatzeko laguntza jasotzeko.
- Banakako lana: aste guztietan, parte hartzaile bakoitzak banaka egin beharreko lana izango du, gutxienez: taldeko saioan planteatutako erronkari erantzuna ematea, proiektu propioari aplikatuta, eta "Galderak eta erantzunak" taldeko saioaren aurretik "podcastak" entzutea.

Fase hori amaituta, proiektu parte hartzaileen ebaluazioa egingo da, ordura arte lortutako emaitzak eta proiektuaren heldutasun maila oinarri hartuta. Eskatzen den gutxieneko puntuazioa lortu duten proiektuek bigarren fasera pasatu ahal izango diren proiektuen zerrenda osatuko dute; horretan, La Bretxako Merkaturako lokaletan probak egin eta esperimintatzeko aukera izango dute, beren produktuak eta/edo zerbitzuak zuzenean kontsumitzaileari/bezeroari salduz.

b) LA BRETXAKO MERKATUAN DAUDEN LOKAL KOMERTZIALETAN PROBAK EGITEKO ETA SALTZEKO FASEA

Fase honetan sartu diren proiektuek 6 hilabetez produktuekin esperimintatu eta horiek merkaturatu ahal izango dituzte, probaldia amaitu ondoren lokal komertzial bat bere kabuz hartzeko. Faseak bi aldi izango ditu:

- Probak egitea eta esperimintazioa. Aldi hau probalditzat edo enpresaren proba pilotutzat hartuko da. Lokala ekintzaile bakar batek hartu ahal izango du edo bi pertsonaren artean partekatu ahal izango da.
- Aholkularitza eta laguntza teknikoa. Bana-banako laguntza eta aholkularitza eskainiko da ekintzailea lokal komertzialean fisikoki egon bitartean, negozioa probatzen laguntzeko eta, horrela, kudeaketa, jarduera komertzialak eta abar zuzendu eta/edo hobetu ahal izateko.

Lokala eskuratzeko eta erabiltzeko eskubidea administrazio emakidaren bidez esleitu da, hau da, Donostiako Sustapenak 6 hilabeteko eperako eskualdatuko du lokal komertzialaren ustiapena, luzatzeko aukerarekin, betiere deialdi honetan jasotako betebeharrak betetzeko konpromisoarekin.

2.2. PROIEKTU KOMERTZIALAK

Merkatarien kasuan, programak fase bakar bat izango du: La Bretxako Merkatuan kokatutako lokal komertzialetan produktuak probatzea eta saltzea.

Produktuak, merkataritza formulak, formatu komertzialak etab. probatu eta merkaturatzeko hautatutako merkatariek Donostiako Sustapenak La Bretxako Merkatuan esleitu dien lokalean jarri beharko dute saltokia. Lokal horretan 3 hilabetez egon ahal izango dira, luzatzeko aukerarekin, betiere onuradunak aldeztu aurretik eskaera egiten badu eta Donostiako Sustapenak onartzen badu.

Egonaldian, banakako aholkularitza zerbitzua emango zaie, laguntzeko eta ebaluazioa egiteko, programan parte hartzen duen negozio bakoitzaren benetako inpaktua, baita etorkizuneko bideragarritasuna ere neurtzeko.

Lokala eskuratzeko eta erabiltzeko eskubidea administrazio emakidaren bidez esleitu da, hau da, Donostiako Sustapenak 3 hilabeteko eperako eskualdatuko du lokal komertzialaren ustiapena, luzatzeko aukerarekin, betiere deialdi honetan jasotako betebeharrak betetzeko konpromisoarekin.

3. KOFINANTZAKETA

Ekinn dendak Merkatuak programak Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren kofinantzaketa du, garapen ekonomikoa sustatu, tokiko merkataritza sendotu eta enpresei eta merkatariei laguntzen dielako hazkundea eta jasagarritasuna lortzen.

4. PROGRAMAREN ONURADUNAK

Programaren onuraduntzat hartuko da laguntza lortu duen ekintza bete behar duen edota laguntza jasotzea legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona fisikoa, baldin eta Oinarri hauetan aipatutako baldintza guztiak betetzen baditu.

4.1 Deialdi honek arautzen dituen lokalen erabilera lagapenaren onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoak, enpresa jarduera Donostiako udal mugartean garatzeko asmoa badute, bertan bizi diren ala ez kontuan izan gabe, betiere Donostian kokatuko diren edo kokatuta dauden enpresa ekimenak badira, laster martxan jarriko badira edo jada abian jarri badira (alta ekonomia jardueren gaineko zergan); edota jarduera ekonomiko-komertzialaren leerro berri bat hautatu duten finkatutako ekimen komertzialak.

Ezinbesteko baldintza izango da La Bretxako Merkatuarekin eta erabil daitezkeen lokalen ezaugarri fisikoekin eta erabilerarekin bateragarritzat jotzen diren jarduerak garatzeko proiektu bat izatea.

Baztertu egingo dira ikuspuntu tekniko, sozial, ekonomiko edo juridiko batetik esparru komuna, giroa edo tokiko ingurunea nolabait kaltetzen duten proiektu eta jarduerak, baita teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarriak ez diren edo Merkatuko bizikidetzaz aztoratzen dezaketen proiektuak ere.

4.2. Programan ezingo dute parte hartu pertsona fisiko edo juridiko hauek:

- a. Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ez badituzte.
- b. Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigorra ezarri bazaie, edota horretarako ezgaitzen duen lege debekua badute, sexuan oinarritutako diskriminazioagatik ezarritakoak barne, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera; halaber, ezingo dira onuradun izan dagokion zehapenean ezarritako aldian sexuagatiko bereizkeriagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik administrazioko edo zigor arloko zehapena jaso duten pertsona fisikoak edo onuradunak. Halaber, ezingo dute laguntza eta dirulaguntzarik jaso estatu araudiaren arabera berdintasun plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresek, baita 50 langiletik gora dituzten eta, estatu legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen bezala, sexu jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu indarkeriak prebenitzeko edo haien aurka egiteko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten enpresek ere.
- c. Jarduera jada martxan jarri dutenen kasuan, Donostiako Udalarekin eta/edo Donostiako Sustapenarekin zorrak badituzte.
- d. Lehenago eman zaizkien dirulaguntzak edo horien zati bat oraindik itzuli ez badute, dagokion zenbatekoa itzuli dela egiaztatzen ez den bitartean.
- e. Kide diren jabekideen erkidegoaren kuota guztiak edo horien zati bat oraindik itzuli ez badute.

4.3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoa betetz, interesdunek badute eskubidea administrazio jardulearen eskuetan dauden dokumentuak edo beste administrazioen batek egindako agiriak ez aurkezteko. Gainera, administrazio jarduleak agiri horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak ez badu desadostasuna adierazi; horrelakoetan, agiriak aurkeztu beharko lituzke.

4.4. Donostiako Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzakoa den elkarreragingarritasun aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko du Administrazio Publiko eskudunetan ondoko informazioa, programa hau ebazteko:

- Udalarekiko eta Donostiako Sustapenarekiko zorrak ordainduta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Foru Ogasunaren zorretan ez egotea egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Ekonomia jardueren gaineko zergaren historia.
- Gizarte Segurantzarekiko zorrik ez izatea egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Deialdia egiteko orduan eta ordainketak egiterakoan Udal Zerga Bilketarekin, Foru Ogasunarekin eta/edo Gizarte Segurantzaren zorrak dituzten onuradunek jakinarazpena jaso eta hurrengo HAMAR (10) egun balioduneko epean egiaztatu beharko dute ordainketa horiek egunean dituztela.

5. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Parte hartzeko baldintzak honako hauek dira:

5.1 EKIMEN EKINTZAILEAK

Programaren lehenengo fasean parte hartzeko, nahitaezko baldintza izango da Donostiako lokal komertzial batean kokatzeko moduko merkataritza edo zerbitzuen arloko negozio ideia bat edukitzea.

Parte hartzaileak Donostiak kokatu nahi diren edo bertan kokatutako proiektuak dituzten eta egitasmoa laster martxan jarriko duten edo jarduera hasi duten pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira. Pertsona eta/edo saltoki bakoitzak gehienez ere bi proposamen egin ahal izango ditu.

Bigarren fasean parte hartzeko, hautatutako proiektuek jarduera ekonomiko bat egiteko behar diren administrazio baldintza guztiak bete beharko dituzte:

- Ekonomia jardueren gaineko zergan eta langile autonomoen araubide berezian alta emanda egotea.
- Indarrean dagoen erantzukizun zibilaren aseguru bat edukitzea.
- Merkataritza jarduera bati lotutako betebeharrak guztiak betetzea, administratiboak eta legalak, TicketBai fakturazioa barne.

Hautatutako proiektuak aurkeztu dituzten ekintzaileek, bigarren fasea hasterakoan alta emanda ez badaude, 15 eguneko epea izango dute Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren izena emateko. Epe hori hilabete batekoa izan ahalko da forma juridikoa hautatzeko izapide luzeagoa behar duten kasuetan. Horrelakoetan, ezingo da salmentan aritu, izapide guztiak amaitu eta gainerako baldintzak betetzen ez badira. Donostiako Sustapenak aholkularitza eskainiko du beharrezko izapideak egiteko.

Bigarren fasea hasi aurretik, Donostiako Sustapenak dokumentazioa eskatuko du, adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

5.2 PROIEKTU KOMERTZIALAK

Programan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango da pertsona fisiko edo juridikoa izatea eta egoitza soziala Donostiako udal mugartean izatea. Pertsona fisikoen edo sozietate zibilen kasuan, bestelako egoitza soziala izatea onartuko da, baldin eta, Sustapenaren iritziz, nahikoa ebidentzia badago programan parte hartzeko eskaerari lotutako jarduerak La Bretxako Merkatuaren merkataritza eskaintza osatzen duela frogatzeko.

Programan parte hartzeko proposamenen jarduerak ondoko helburuetako bat izan beharko du:

- Beren establezimenduan produktu/zerbitzu berri bat sartzeko proba egitea.
- Parte Zaharrean bere hedapen komertziala aztertzea.
- *Co-branding* formulak garatzea, tokia beste negozio batekin partekatuz.
- Formula komertzial berriekin esperimentatzea: produktu bat alokairuan hartzeagatik ordaintzea, produktu baten bigarren bizitza,...

Pertsona eta/edo saltoki bakoitzak gehienez ere bi proposamen egin ahal izango ditu. Horrez gain, merkatariek bete beharko dituzte beren jarduera ekonomikoan aritzeko beharrezkoak diren baldintza administratibo eta legal guztiak, eta gainera:

1. Eskaera aurkezten duen saltokiak Donostiako udal mugartean kokatuta egon beharko du.
2. Eskatzaileak jarduera ekonomikoen gaineko zergan altan emanda egon beharko du eta egoitza soziala Donostian izan beharko du.
3. Eskaerari lotuta dagoen proiektuak Oinarri hauetan jasotako baldintzak bete beharko ditu.

Honako hauek ezingo dira onuradun izan: enpresa txikiak izateko baldintzak betetzen ez dituzten enpresak.

Enpresa txikitzat joko da entitate oro, bere izaera juridikoa edozein izanik ere, baldin eta:

- Jarduera ekonomikoan badihardu.
- Aktiboa edo eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehaztu bezala, HAMAR (10) milioi eurotik gorakoa ez bada.
- Langileen batez besteko kopurua 50etik beherakoa izatea.
- Lehen adierazitako baldintzetako bat betetzen ez duen beste enpresa batek haien gaineko % 25 edo gehiagoko partaidetzarik ez edukitzea –ez zuzenean, ez zeharka–, salbu eta beste enpresa hori arrisku kapitaleko funts edo

sozietateak direnean eta Foru Arau honetako IV. kapituluan ezarritako araubide berezia aplikatzen bazaie.

Erakundea sozietate taldekoa denean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluekin bat, aipatutako langile kopuruek taldea osatzen duten erakunde guztiei egingo diete erreferentzia.

6. PROZEDURA. HAUTAKETA IRIZPIDEAK

Lokal komertzialak erabiltzeko lagapena adjudikatzeko prozedura, erregistro ordenaren arabera egingo da, baldin eta kasuan-kasuan eskatzen den gutxieneko puntuazioa lortzen bada (ekintzaileak eta merkatariak), eta La Bretxako Merkatuan erabilgarri dauden lokalak agortu arte.

Prozedura Donostiako Sustapenak egiten duen deialdi publikoaren bidez hasiko da. Eskaerak ebaluatu eta ebatzi egingo dira proiektu komertzialari eta hura garatuko duen pertsonalari dagozkien irizpideak kontuan hartuta:

6.1. EKIMEN EKINTZAILEAK

Ebalua daitezkeen irizpideak honako hauek dira:

- a) Proiektu komertziala, negozio eredua, berrikuntza, digitalizazioa eta jasangarritasuna. (Gehienez ere 50 puntu)
 - { Negozio ideiaren deskribapena eta jatorria, eta erantzun nahi zaion premia. Gehienez ere 10 puntu.
 - { Negozio ideia garatzeko maila. Gehienez ere 10 puntu.
 - { Berrikuntza maila. Gehienez ere 10 puntu.
 - { Tresna teknologikoen garapena eta erabilera eta digitalizazio maila. Gehienez ere 10 puntu.
 - { Proiektuaren jasangarritasuna (ekonomikoa eta ingurumenekoa). Gehienez ere 10 puntu.

Parte hartzeko eskaerak erregistratu ahala, Donostiako Sustapeneko lantalde teknikoak ebaluatu egingo ditu, eta 30 puntu baino gehiago lortu dituzten ekimenen sortzaileek elkarriketa pertsonalerako gonbidapena jasoko dute, non taldeari lotutako irizpideak ebaluatuko baitira (gehienez, 50 puntu).

- b) Profil pertsonala, konpromisoa eta prestasuna. (Gehienez ere 50 puntu)
 - { Programan parte hartzeko motibazioa. Gehienez ere 10 puntu.
 - { Proiektuaren arloari buruzko prestakuntza maila, ezagutza eta esperientzia. Gehienez ere 10 puntu.

- { Taldearen koherentzia maila eta planteamenduaren eta eskuduntzen banaketa. Gehienez ere 10 puntu.
- { Programan parte hartzeko eta proiektua garatzeko prest egotea, epe ertain eta luzean. Gehienez ere 10 puntu.
- { Harreman kapitala edo harremanen sarea, produktu edo zerbitzuaren balio kateari dagokionez. Gehienez ere 10 puntu.

"Taldeari" dagokion puntuazio hori eta "Proiektuarena" batu egingo dira, eta 65 puntu edo gehiago lortu duten proiektuak **Ekin** dendak Merkatua programan parte hartzeko hautatuko dira.

6.2. PROIEKTU KOMERTZIALAK

Ebalua daitezkeen irizpideak honako hauek dira:

a) Proiektu komertziala. (Gehienez ere 60 puntu)

- { Merkatuaren azterketa: eragin eremua, zuzeneko eta zeharkako lehiakideak egotea eta azterketa, merkatu kuota. Gehienez ere 10 puntu.
- { Hazkunde ahalmena: proiektuaren hedapena eta hazkundera, gaitasun berritzailea eta joera berrietara eta merkatuaren aldaketetara egokitzeko ahalmena. Gehienez ere 10 puntu.
- { Merkataritza eskaintza: produktu eta/edo zerbitzuen aniztasuna eta kalitatea, eskaintako produktuen sorta (zabaltasuna eta sakontasuna) eta prezio eta sustapenen estrategia. Gehienez ere 10 puntu.
- { Azterketa ekonomiko-finantzarioa: salmenta bolumen estimatua, salmentek gora egiteko joera eta produktuen arabera estimatutako errentagarritasuna. Gehienez ere 15 puntu.
- { Zerbitzuaren kalitatea: bezeroak gogobetetzeko eta fidelizatzeko proposamena. Gehienez ere 5 puntu.
- { Kudeaketa eta operazioak: efizientzia operatiboa eta inbentarioaren kudeaketa. Gehienez ere 5 puntu.

Parte hartzeko eskaerak erregistratu ahala, Donostiako Sustapeneko lantalde teknikoak ebaluatu egingo ditu, eta 35 puntu baino gehiago lortu dituzten proiektuen sortzaileek elkarrizketa pertsonalerako gonbidapena jasoko dute, non lantaldeari eta pertsonalari lotutako irizpideak ebaluatuko baitira (gehienez, 40 puntu).

b) Lantaldea eta pertsonala. (Gehienez ere 40 puntu).

- { Proiektuaren helburu den arloari buruzko prestakuntza maila, ezagutza eta esperientzia. Gehienez ere 15 puntu.

- { Lantaldearen koherentzia, planteamenduan eta eskuduntzen banaketan eta proiektu eredua. Gehienez ere 10 puntu.
- { Proiektu epe ertain eta luzean garatu eta ezartzeko ahalmena. Gehienez ere 15 puntu.

"Lantalde eta pertsonalari" dagokion puntuazio hori eta "Proiektuarena" batu egingo dira, eta 65 puntu edo gehiago lortu duten proiektuak **Ekinn** dendak Merkatua programan parte hartzeko hautatuko dira.

7. ESKAERAK, EPEAK ETA DOKUMENTAZIOA

6.1 Eskaerak bide telematikoz aurkeztu ahal izango dira Oinarriak Donostiako Sustapenaren webgunean (<https://www.fomentosansebastian.eus/eu/>) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, **2025eko azaroaren 30era arte**.

Bide horiek ezin badira erabili, Donostiako Sustapenarekin harremanetan jarri behar da, eskaera izapidetzeko beste modu bat erabaki dezan.

6.2 Eranskinak osorik bete eta behar bezala sinatu beharko dira sinadura digitalaren bidez. Dagokion eskabide orriari Oinarrietan eskatzen den administrazio agiri guztiak erantsiko zaizkio. Edozein informazio eskatu, zalantza argitu edo kontsulta egiteko, Donostiako Sustapenak pertsona guztien eskura jarriko du 943482800 telefono zenbakia, astelehenetik ostegunera 09:00etatik 17:00etara, eta ostiral eta jaiegun bezperetan 09:00etatik 14:00etara, eta fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoa; idazteko, gaian **Ekinn** dendak Merkatua 2025 jarri beharko da.

Programan parte hartzeko interesa duten pertsonak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- 1) Eskaeraren eranskina.
- 2) Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NANaren kopia.
- 3) Pertsona juridikoa bada, eskatzailearen IFK agiriaren kopia eta, hala badagokio, ahalordedunaren NAN agiria.
- 4) Proiektuaren memoria, pertsona edo talde sustatzaileari eta proiektuari buruzko informazioa jasotzen duena, proiektuen ebaluazioan aplikatuko diren eta parte hartzeko Oinarri hauetan xehetasunez azaltzen diren balorazio irizpideei erantzuteko.

Dokumentu horietaz gain, **esperimentazio fasera igarotzen diren ekimen ekintzaileen** kasuan, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- 5) Ekintzailearen lan bizi-tza.
- 6) Erantzukizun zibileko aseguru ordaindu izanaren agiriaren kopia, proiektu komertzialari dagokiona.
- 7) Pertsona juridikoen kasuan, enpresa eskatzailearen IFK.

- 8) Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako jarduera ekonomikoen gaineko zergan egindako alta eta baja guztien zerrenda.

Proiektu komertzialen kasuan, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- 10) Erantzukizun zibileko aseguruia ordaindu izanaren agiriaren kopia.
11) Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako jarduera ekonomikoen gaineko zergan egindako alta eta baja guztien zerrenda.
12) Lokal komertzialaren kokapen fisikoaren aitortpena (Eskaera eranskinean sartuta).

8. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Aurkeztutako eskaerak erabat beteta ez badaude, pertsona edo entitate interesdunari errekerimendua egingo zaio jakinarazpena jasotzen duenetik HAMAR (10) egun balioduneko epean eskaera osatu edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan, hori egin ezean eskaera gaitzetsi egingo dela eta dagokion ebazpena emango dela adierazita.

9. EBAZPENA

Programan parte hartzeko eskaerak Oinarri hauetan adierazitako parametroen arabera ebatziko dira. Kasu guztietan, eskaera onartu edo ukatzea Donostiako Sustapenak emandako esanbidezko ebazpenaren bidez adieraziko da eta posta elektronikoz jakinaraziko da, eskaeraren eranskinean adierazitako helbidera idatziz.

Proiektuak La Bretxako Merkatuan okupatu gabe dauden lokaletan instalatuko dira, lortutako puntuazioaren eta lokal horietan libre dagoen lekuaren arabera.

Gutxieneko puntuazioa lortu arren La Bretxako Merkatuko lokaletako bat berehala okupatu ezin duten proiektuek zerrenda bat osatuko dute, eta lokal horietako bat arrazoi batengatik hutsik geratzen bada, hura hartzeko aukera izango dute.

10. PARTE HARTZAILEEN BETEBEHARRAK.

Programan parte hartzen duten pertsonak honako berariazko betebeharrak bete beharko dituzte:

1. Programako betekizun eta baldintzak betetzea, prestakuntza jardunaldi guztietan parte hartuz eta hasieratik ezarritako lan plana betez.

2. Jarduera ekonomiko bat egiteari berez dagozkion arau guztiak betetzea (ekonomia-jardueren gaineko zergan alta ematea, erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea, Gizarte Segurantzak eta abar).
3. Norberaren merkataritza jardunerako nahitaez bete behar diren arau guztiak betetzea (produktuak eta zerbitzuak).
4. Lokala mantentzeko ezarriko diren baldintzak eta La Bretxako Merkatuko arau komunitarioak betetzea.
5. Programan ezarritako ordutegi komertziala betetzea.
6. Lokal komertzialean egiten den egonaldiari lotutako edozein arau betetzea, garapen eta funtzionamenduari dagokienez, probak egiteko eta esperimentatzeko fasean.
7. Proiektua hautatzeko kontuan hartutako edozein inguruabar –subjektibo zein objektibo– aldatzen bada, Donostiako Sustapenari horren berri ematea.
8. Programaren garapenari dagokionez, Donostiako Sustapenak bere eginkizunak betez eskatzen duen informazio guztia ematea.
9. Donostiako Sustapenari laguntzea, hala badagokio, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta bere esku jartzea eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia.
10. Donostiako Sustapenari baimena ematea bere enpresen direktorio digitaletan honako hauek argitaratzeko: harremanetarako pertsonaren datuak, jarduera, izen komertziala, logoa, marka eta beste edozein bereizgarri, ekintzaileak trafiko ekonomikoan erabiltzen duena. Ondorio horretarako, ekintzaileak elementu horiek adierazitako helburuekin bakarrik erabiltzeko eta eskusibotasunik gabe ustiatzeko lizentzia bat emango dio Donostiako Sustapenari eta Sustapenak era baketsuan erabiltzea bermatuko du. Hortaz, baldintzak arauemaile hauetan esanbidez ezarritakoa ez den beste edozein erabilera espresuki baimendu beharko da.
11. EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanaz) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mailinga, megafonia, seinaleztapena eta abar), sustapen eta hedapen materialetan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan eta abarretan.
12. Onuradunek Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango dute testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko (hilean gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), baldin eta zerbitzuaren baldintzak eta

ezaugarriak betetzen badira.
(<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es>).

13. Azpiegitura, material, euskarri eta espazio guztietan Donostiako Udalaren, Donostiako Sustapenaren eta Eusko Jaurlaritzaren logoak jartzea.



11. PROGRAMAREN BALDINTZAK EZ BETETZEA

Parte hartzaileak Oinarri hauetan ezarritako baldintzetako edozein betetzen ez badu, galdu egingo du programan parte hartzeko eskubidea, dagozkion betebeharrekin.

12. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, jakinarazten da emandako datuak Donostiako Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun moduan, eta Donostiako Sustapena SAK informazioa kudeatuko du tratamenduaren eragile moduan.

Tratamenduaren helburua Ekin dendak Merkatua programan parte hartzea izapidetu eta kudeatzea da. DBEOren 6.1.e) artikulua da tratamenduaren bidez kotasunaren oinarria: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo eskabide inprimaketan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa derrigorrez eman beharko da, eta datu okerrak emateak edo daturik ez emateak eskabidea kudeatzea eragotziko du.

Ez da aurreikusten datuak beste bati komunikatzerik, legezko betebeharririk ez badago edo behar-beharrezkoa ez bada, kanpoko hornitzaileei laguntza teknikoa emateko. Ez da aurreikusten datuen nazioarteko transferentziarik. Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak bildu diren helburua betetzeko eta helburuaren eta tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko dira. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Eragindako pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte hala dagokionean, baita datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritako beste eskubide batzuk ere, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuaren bitartez: Easo kalea 41, 20006 Donostia. Interesdunak bere eskubideak baliatzeko garaian behar bezalako arreta jaso ez badu, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, aldez aurretik, datuen babeserako Donostiako ordezkariarekin harremanetan jartzeko aukera izango du: dbo@donostia.eus.

13. AZKEN XEDAPENA

Oinarri hauek Donostiako Sustapenaren webgunean argitaratuko dira (<https://www.fomentosansebastian.eus/eu/>) eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko dira indarrean. Interesdunek eskaera aurkezten badute, Oinarri hauek osorik onartzen dituztela esan nahi du.

Hautatutako pertsona/enpresa aurkeztutako dokumentazio osoaren egiazkotasunaren, baita jardueraren aurretiko eta ondorengo jarduketan ondorioz sor daitezkeen kalte pertsonal eta material guztien ere erantzule bakarra izango da, eta Donostiako Udalak eta Donostiako Sustapenak ez dute inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

Donostian, maiatzaren 27an